

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

13/2026 Foru Araua, ekainaren 10ekoa, Egonaldi Turistikoaren gaineko Zergari buruzkoa

Jakinarazten dut Arabako Batzar Nagusiek 2026ko ekainaren 10ko osoko bilkuran onetsi dutela, eta nik aldarrikatzen eta agintzen dut argitara dadila "13/2026 Foru Araua, ekainaren 10ekoa, egonaldi turistikoaren gaineko zergari buruzkoa", aplikagarria zaien herritar guztiek, partikularrek eta agintariek bete eta betearaz dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko ekainaren 10a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

13/2026 FORU ARAUA, EKAINAREN 10EKOA, EGONALDI TURISTIKOEN GAINEKO ZERGARI BURUZKOA

ZIOEN AZALPENA

Arabako Lurralde Historikoan turismo ostatuaren jarduera bizi-bizi dago eta zenbait ondorio sortzen ditu egiten den udalerrietako zerbitzu publikoetan. Horregatik, bidezkoa da egonaldi turistiko horiek kargatuko dituen berariazko zerga tresna bat ezartzea.

Foru arau honek egonaldi turistikoaren gaineko zerga arautzen du. Zerga hori nahitaez aplikatu beharko da Arabako Lurralde Historikoko udalerrietan, toki ogasunen arloan indarrean dagoen eskumen esparruari jarraikiz.

Gainera, foru arau honek gaikuntza ematen die udalei ordenantza fiskal baten bidez karga tasak zehazteko (ezarritako mugen barruan) eta hobariak edo errekarquak aplikatzeko udalerriko ostatu eskaintzaren arabera, proportzionaltasunaren eta segurtasun juridikoaren printzipioak bermatuta.

Foru arau hau bat dator Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan ezarritako erregulazio onaren printzipioekin. Premiaren eta eraginkortasunaren printzipioak direla eta, foru arau hau beharrezkoa da egonaldi turistikoaren gaineko zergaren arau esparrua finkatzeko. Gainera, tresna egokia da zerga hori zuzen aplikatzen dela bermatzeko. Proportzionaltasunaren printzipioarekin bat etorritik, adierazitako helburua lortzeko ezinbestekoa den arauketa biltzen du, ez baitago eskubideak gutxiago murrizten dituen aukera arautzailerik. Segurtasun juridikoaren eta eraginkortasunaren printzipioen arabera, koherentea da ordenamendu juridikoarekin, eta baliabide publikoaren kudeaketa eraginkorragoa ahalbidetzen du. Gardentasunaren printzipioa ere betetzen du, argi eta garbi identifikatzen baitu bere asmoa, eta, araua egiteko prozeduran zehar, hartzailerik izan daitezkeen parte hartze aktiboa ahalbidetu da, entzunaldiko izapidearen eta jendaurreko informazioaren bidez.

ATARIKO TITULUA Xedapen orokorrak

1. artikulua. Foru arauaren xedea

Foru arau honen xedea da Arabako Lurralde Historikoko udalerrietan aplikatzen den Egonaldi Turistikoaren gaineko Zerga sortzea eta arautzea.

2. artikulua. Izaera eta aplikazio eremua

1. Egonaldi Turistikoaren gaineko Zerga zeharkako eta berehalako tributu erreal bat da, Arabako Lurralde Historikoko udalerrietako ostatu establezimendu turistikoetako egonaldiak zergapetzen dituen, foru arau honetan ezarritako baldintzetan.

2. Foru arau honetan xedatzen dena Arabako Lurralde Historiko osoan aplikatuko da, Toki Ogasunen Foru Arauaren testu bateginaren 22. artikulua 1. apartatuarekin bat etorritik (testu hori irailaren 29ko 1/2021 Foru Dekretu Arauemaileak onesten du).

3. artikulua. Definizioak

Foru arau honen ondorioetarako, definizio hauek finkatzen dira:

1) Ostatu zerbitzu turistikoak: turismorako erabiltzen diren azpiegituretan, instalazioetan, ekipamenduetan edo altzarrietan ostatu hartzea ahalbidetzen duten zerbitzuak.

2) Egonaldia: ostatu zerbitzu turistikoa erabiltzea, gaua igarota zein ez.

3) Egonaldi unitatea: zergadun batek turismo establezimendu batean etengabe egiten duen egonaldiko egun (edo egun zatiki) bakoitza.

4) Etengabeko egonaldia: pertsona bat aldi batez etengabe ostatu establezimendu turistiko batean egotea, zenbat erreserba, kontratu edo onarpen agiri dauden kontuan hartu gabe.

5) Ostatu plazen kopurua: ostatu establezimendu turistikoan dauden ohe finkeen kopurua (ohe osagarriak ez). Ohe bikoitzetan bi plaza daude. Kanpinetan eta kanpatzeko beste modalitate batzuetan, plazen kopurua baimenaren arabera har daitezkeen pertsonen kopurua da.

6) Egonaldiko egunen edo zatikien kopurua: ostatu establezimendu turistikoek sartzeko eta irteteko ordutegiari buruz ezarritako arauak edo usadioak aplikatuta kalkulatu da.

7) Intentsitate turistikoa: udalerrian dauden ostatu plazen ratioa, udalerriko zuzenbidezko biztanleen kopuruarekin alderatuta.

I. TITULUA Zerga egitatea eta salbuespenak

4. artikulua. Zerga egitatea

1. Zerga egitatea da zergadunek denbora igarotzea Arabako Lurralde Historikoan dauden ostatu establezimendu turistikoetan:

2. Zerga honen ondorioetarako, honako hauek dira ostatu establezimendu turistikoak:

a) Turismo establezimenduak, aplikatu beharreko turismo araudian jasotako kategorien arabera:

1) Hotel establezimenduak.

2) Ostatu etxeak.

3) Turismo apartamentuak.

4) Kanpinak eta kanpatzeko beste modalitate batzuk.

5) Nekazaritza turismoko establezimenduak.

6) Landetxeak.

7) Aterpetxeak.

8) Araudi aplikagarrian onartzen diren gainerako ostatu establezimendu turistiko guztiak.

b) Erabilera turistikoko etxebizitzak, aplikatzekoa den turismo araudian jasotako moten arabera:

1) Osorik lagatako turismo erabilera etxebizitzak.

2) Turismo erabilera etxebizitza partikularrak, logelaka lagatzen direnak.

5. artikulua. Salbuespenak

Zergaren kargatik salbuetsita daude:

a) Europar Batasuneko estatuetako edo Europako Esparru Ekonomikoaren Akordioari atxikitako estatuetako administrazio publikoek helburu turistikoekin antolatzen dituzten programa sozialen dirulaguntza jasotzen duten egonaldiak.

Salbuespen hori aplikatu ahal izateko, erreserbaren egiaztagiria aurkeztu beharko da, edo programa soziala sustatzen duen erakundearen faktura, eta agiri horretan programa identifikatu beharko da, bai eta egonaldia finantzatzen duen administrazio publikoa ere, eta programaren onuradunen zerrenda agertu beharko da.

b) Hemezortzi urtetik beherako pertsonen egonaldiak.

Salbuespen hori aplikatu ahal izateko, adingabearen nor den eta zenbat urte dauzkan frogatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira (nortasun agiria, pasaporte, familia liburua edo antzeko besteren bat); frogagiririk eduki ezean, guraso, tutore edo adin nagusiko laguntzaile baten erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da.

c) Ehuneko 65eko desgaitasun maila edo handiagoa edo II. edo III. gradu mendekotasuna frogatzen duten pertsonen egonaldiak, bai eta haiekin doazen pertsonenak ere; desgaitasun edo mendekotasuna duen pertsona bakoitzeko gehienez laguntzaile batena.

Salbuespen hori aplikatzeko, salbuespena aplikatzeko kasua gertatzen dela egiaztatzen duten dokumentuak aurkeztu beharko dira, eta zergadunak erantzukizunpeko adierazpen bat ere aurkeztu beharko du, dela desgaitasuna duen edo mendekotasun egoeran dagoen pertsona gisa, dela laguntzaile gisa, edo, hala badagokio, indarrean dagoen legeriaren arabera bere gaitasun juridikoa baliatzeko laguntza ematen dionak.

Erantzukizunpeko adierazpenean desgaitasuna duen edo mendekotasun egoeran dagoen pertsonaren datuak agertu behar dira, bai eta, hala badagokio, laguntzailearenak ere.

Salbuespena zenbait pertsonari aplikatu nahi izanez gero, erantzukizunpeko adierazpena batera aurkeztu dezakete. Halakoetan, zergadun guztien datuak adierazi behar dira. Nahikoa izango da pertsona horietako baten sinadura, adin nagusikoa bada, edo, hala badagokio, indarrean dagoen legeriaren arabera gaitasun juridikoa baliatzeko laguntza ematen dionaren sinadura.

d) Ostatu establezimendu turistikoetan egonaldia egitea hezkuntza sistemako maila eta gradu guztietako ikasketak egiteko (unibertsitateko hirugarren ziklora arte), ikerketa akademikoak egiteko edo Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko batek antolatutako talentu programa batean aritzeko.

Salbuespen hori aplikatu ahal izateko, salbuespena aplikatzeko kasua gertatzen dela egiaztatatu beharko da.

e) Osasun arrazoiengatik egindako egonaldiak, bai eta egonaldia egin behar duen pertsonarekin doazen pertsonenak ere; gehienez ere laguntzaile bat tratamendua behar duen pertsona bakoitzeko.

Salbuespen hori aplikatu ahal izateko, zergadunak osasun zentroaren ziurtagiria edo txosten medikoa aurkeztu beharko du, adierazten duena jasotako osasun arreta Osakidetza zerbitzuen zerrendan dagoela, eta, horretaz gainera, pazienteak eta laguntzaileak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute. Erantzukizunpeko adierazpenean pazientearen identifikazio datuak agertu behar dira, eta, hala badagokio, laguntzailearenak ere bai. Salbuespena zenbait pertsonari aplikatu nahi izanez gero, erantzukizunpeko adierazpena batera aurkeztu dezakete. Halakoetan, zergadun guztien datuak adierazi behar dira, eta nahikoa da adin nagusikoa den zergadunetako batek sinatzea.

f) Ezinbesteko arrazoiengatik egiten diren egonaldiak.

Salbuespen horren ondorioetarako soilik, ezinbesteko arrazoiak dira: aurreikusi gabeko zein aurreikusitako gertaera saihestezinak, hondamendi naturalekin, larrialdi egoerekin edo pertsonentzat aparteko arriskua dakarten indarkeria ekintzekin lotuta daudenak, eragiten dutenak pertsonen turismo establezimendua premiaz eta behin-behinean okupatu beharra, edo larrialdien edo segurtasun publikoaren arloko neurri publikoren bat aktibatzea dakartenak.

Era berean, eta salbuespen horren ondorioetarako soilik, ezinbesteko arrazoiaren ondoriozko egonaldizat hartuko dira zergadunek bizi diren udalerrian bertan egin beharrekoak, etxebizitza erabiltzeko ezintasun fisikoa dakarten ezohiko egoera objektiboak gertatzearen ondorioz, hala nola etxebizitzan bizitzea eragozten duten obrak edo etxebizitzan gertatutako ezbeharrak eta antzeko egoerak.

Salbuespen hori aplikatu ahal izateko, zergadunak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du (zergadun bat baino gehiago izanez gero, adierazpena batera aurkeztu ahal izango dute), eta bertan zer gertatu den edo harekin lotuta zer neurri publiko aktibatu den azaldu beharko du, segurtasun publikoaren edo larrialdien arloan eskumena daukan administrazio publikoak emandako dokumentu baten bidez, salbu eta udalak ezinbesteko egoeraren arrazoiaren berri badu lege adierazpen baten ondorioz edo egoera nabarmena delako. Dokumentu horretan, gainera, zergadunen identifikazio datuak eta adin nagusikoa den haietako baten sinadura agertu beharko da.

II. TITULUA Eremu subjektiboa

6. artikulua. Subjektu pasiboak

1. Zergaren subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, foru arau honen 4. artikuluan aipatzen diren ostatu establezimendu turistikoetako batean egonaldia egiten duten pertsona fisikoak.

2. Honako pertsona fisiko zein juridiko hauek eta Arabako zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 35. artikulua 3. apartatua aipatzen diren erakundeak zergadunaren ordezkariak dira (eta ondorioz nahitaez bete behar dituzte foru arau honetan eta berau garatzen duten xedapenetan eta beronen kudeaketa eta aplikazioa arautzeko ematen diren xedapenetan ezarritako betebeharrak materialak eta formalak): aurreko 4. artikuluan aipatzen diren ostatu establezimendu turistikoetako baten ustiapenaren titularrak.

3. Kontrako frogarik ezean, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 35. artikulua 3. apartatua aipatzen den pertsona fisiko edo juridiko edo erakunde delak bere ustiategiaren titularra, baldin eta Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroan inskribatuta badago ostatu establezimendu turistikoari dagokion turismo jardueraren titular gisa.

7. artikulua. Zerga zorraren erantzule solidarioak

Egonaldiengatik sortutako kuotei dagozkien zerga zorrak ordaintzeko erantzukizun solidarioa izango dute egonaldi horiek zuzenean zergadunekin kontratatzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoek edo kontratazioan bitartekari dihardutenek, erreserba formalizatzen edo egonaldiaren prezioa kobratzen esku hartzen badute.

III. TITULUA**Zerga oinarria, kuota eta sortzapena****8. artikulua. Zerga oinarria**

1. Zergadunak ostatu establezimendu turistiko batean egindako etengabeko egonaldi bakoitzeko egonaldi unitateen kopurua izango da zerga oinarria.

2. 24 ordutik beherako egonaldietan egonaldi unitate bat zenbatuko da.

3. Lan arrazoiengatik behin eta berriz egiten diren egonaldiei dagokienez, lanegunak ez diren egunei dagozkien aldi baterako absentziek ez dute egonaldi jarraitua etengo, betiere zergadunak establezimendu berean ostatu hartzen jarraitzen badu.

9. artikulua. Karga tasak

1. Aurreko artikulua arabera zehaztutako zerga oinarriari bidezko ordenantza fiskalen finkatzen den zerga tasa aplikatuko zaio (euroak egonaldi unitateko), kasuan kasukoa ostatu establezimendu turistikoaren motaren arabera eta ondoko taulan ageri diren gutxieneko eta gehieneko tasak kontuan hartuta:

OSTATU ESTABLEZIMENDU TURISTIKOAREN SAILKAPENA	KARGA TASA (EUROAK EGONALDI UNITATEKO) GUTXIENEZ – GEHIENEZ
a) Turismo establezimenduak:	
5 izarreko edo kategoria baliokideko hotel establezimenduak	4,50 – 6,50
4 izarreko edo kategoria baliokideko hotel establezimenduak	3,50 – 5,50
3 izarreko edo kategoria baliokideko hotel establezimenduak	1,50 – 3,50
2 izarreko edo kategoria baliokideko hotel establezimenduak	1,00 – 2,50
Izar bateko edo kategoria baliokideko hotel establezimenduak	0,75 – 1,75
Ostatu etxeak	0,75 – 1,75
Turismo apartamentuak	1,50 – 3,50
Kanpinak edo kanpatzeko beste modalitate batzuk	0,75 – 1,75
Nekazaritza turismoko establezimenduak	0,50 – 1,25
Landetxeak	0,75 – 1,75
Aterpetxeak	0,75 – 1,75
Beste ostatu establezimendu turistiko batzuk	1,50 – 3,50
b) Turismo erabilerako etxebizitzak:	
Osorik lagatako turismo erabilerako etxebizitzak	4,50 – 6,50
Turismo erabilerako etxebizitza partikularrak, logelaka lagatzen direnak	4,50 – 6,50

2. Nolanahi ere, gehienez ere 6 egonaldi unitate zenbatuko dira zergadun bakoitzak ostatu establezimendu turistiko batean egiten duen etengabeko egonaldi bakoitzeko.

10. artikulua. Zerga kuota

Zerga kuota kalkulatzeko, etengabeko egonaldi bakoitzeko egonaldi unitateen kopurua bidezko karga tasaz biderkatu behar da. Aplikatu beharreko karga tasa egonaldia egiten den ostatu establezimendu turistikoaren sailkapenaren arabera izango da, aurreko artikuluan xedatzen denarekin bat etorritik.

11. artikulua. Hobariak eta errekarquak

1. Udalek, ordenantza fiskal baten bidez, zerga kuotaren gaineko ehuneko 100erainoko hobaria ezarri ahal izango dute honako kasu hauetan:

i) Udalerrian 25 ostatu plaza edo gutxiago daudenean.

ii) Udalerriko intentsitate turistikoa 100eko 1 baino txikiagoa denean eta, gainera, ostatu plazen kopurua ez denean 75 baino handiagoa.

2. Halaber, udalek, ordenantza fiskal baten bidez, zerga kuotaren gaineko ehuneko 50erainoko errekarigua ezarri ahal izango dute honako kasu hauetan:

- i) Udalerrian 750 ostatu plaza edo gehiago daudenean.
- ii) 5.000 biztanle edo gehiago dituzten udalerrietan, udalerriko intentsitate turistikoa 100eko 10ekoa edo handiagoa denean.

Errekargu horiek bateraezinak izango dira elkarren artean.

3. Artikulu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, erreferentziatzen hartuko da Eusko Jaur-laritzan turismo arloko eskumena duen sailak urtero egiten duen argitalpenean udalerrri bakoitzari dagokion ostatu plazen kopurua. Argitalpen hori Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardue-ren Erregistroan eta Euskal Estatistika Erakunde (EUSTAT) eskuragarri dagoen informazioan oinarrituta egiten da. Hala eta guztiz ere, dagokion udalak ondorio horietarako aintzat hartzen diren ostatu plazen kopurua egiaztatuz deza.

12. artikulua. Sortzapena eta galdagarritasuna

1. Ostatu establezimendu turistikoa batean egiten den egonaldi turistikoa bakoitza hasten denean sortuko da zerga, eta establezimendu berean etengabe egiten den egonaldiko unitateko bakoitzeko eskatuko da.

2. Ostatu establezimendu turistikoa titularrak ostatu plaza bat zergadun baten esku jartzen duenean hasiko da egonaldi turistikoa.

3. Egonaldia amaitu aurretik, zergadunaren ordezkioak noiznahi eskatu beharko dio zerga zergadunari.

Horretarako, zergadunak ordezkioari jakinaraziko dizkio zerga kuota galdagarria zehazteko behar diren elementuak; gainera, behar denean, aplikatu ahal diren salbuespenen frogagiriak emango dizkio.

Nolanahi ere, zergadunak bidezko zenbatekoa ordaindu beharko dio ordezkioari, eta zenbateko hori ezin izango dio jasanarazi beste pertsona edo erakunde bati.

IV. TITULUA

Zergaren kudeaketa

13. artikulua. Autolikidazioa eta zerga zorra sartzea

1. Zergadunaren ordezkioak zergaren autolikidazioa aurkeztu beharko du eta haren ondoriozko zerga zorra ordaindu beharko du, foru arau honetan eta kasuan kasuko udalaren ordenantza fiskalean ezartzen denari jarraikiz.

Hala ere, ostatu establezimendu turistikoez ez dute autolikidaziorik aurkeztu beharko, baldin eta udalerrian onartutako zerga kuotaren ehuneko 100eko hoberia aplikatzen badute, foru arau honen 11. artikuluan ezartzen denaren arabera.

2. Baldin eta zergadunaren ordezkio batek ostatu establezimendu turistikoa bat baino gehiago ustiatzen baditu udalerrri batean, autolikidazio agregatu bakar batean bildu ahal izango ditu establezimendu horietan likidazio aldi egindako egonaldi guztiak.

3. Likidazio aldiak hiru hilekoak izango dira, urteko hiruhileko naturalak, hain zuzen ere. Zergadunaren ordezkioek bidezko ordenantza fiskalaren bidez ezartzen den epealdiaren barruan eta bertan zehazten den moduan aurkeztu beharko dituzte hiruhilekoetako autolikidazioak.

14. artikulua. Ostatu establezimendu turistikoaren identifikazioa

1. Ostatu establezimendu turistikoak zerga honen inguruko jarduketetan identifikatu behar dira, eta horretarako ematen zaien identifikazio kodea erabili beharko da, hain zuzen ere establezimenduak Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroan duen identifikazioaren arabera.

2. Udalei zerga kudeatzen laguntzeko, Eusko Jaurlaritzan turismoaren arloko eskumena daukan sailak, administrazioen arteko lankidetzan, urtero udalerrietako ostatu plazen kopuruak argitaratuko ditu, oinarri harturik Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroan eta EUSTATen baliagarri dagoen informazioa.

15. artikulua. Informazio betebeharrak

Ostatu establezimendu turistikoaren ustiapenen titularrek zerga ahalen preskripzioaldiaren barruan establezimenduan egiten diren egonaldiei buruzko informazioa eman beharko diote establezimendua dagoen udalerriko udalari, hark eskatuz gero, zerga kudeatzeko, likidatzeko, biltzeko eta ikuskatzeko soilik.

Hain zuzen, honako datu hauek eman beharko dituzte: ostatu hartu duten pertsonen kopurua, sarrera eta irteera datak eta, hala badagokio, salbuespena aplikatzea eragiten duen egoera. Gainera, turismoaren eta segurtasunaren arloko araudian identifikazioaz ezartzen dena bete beharko dute.

Datu pertsonalak datu pertsonalen babesari buruzko indarreko araudian ezartzen denaren arabera tratatuko dira.

16. artikulua. Eskumen esparrua

1. Zerga kudeatzeko, ikuskatzeko eta biltzeko (borondatezko epean zein exekutiboan) ahalmenak ostatu establezimendu turistikoa dagoen udalerriko udalari dagozkio, bai eta zerga zehapenak ezartzea eta zerga kudeatzean eta zerga zehapenak ezartzean ematen diren egintzak berrikustea ere.

2. Hain zuzen ere, udalak arduratuko dira hobariak ezartzeaz, zerga zorrak zehazteko likidazioak egiteaz, kobrantza dokumentuak bidaltzeaz, sarrera bidegabeak itzultzeko espedienteak ebazteaz, egintza horien kontra aurkezten diren errekursoak ebazteaz eta zergadunei apartatu honetan aipatzen diren gaietan laguntzeko eta informazioa emateko jarduketak egiteaz. Zerga hau aplikatzeko egintzak eta jarduketak eta zerga zehapenak ezartzeko egintzak berrikusi egingo dira Toki Ogasunei buruzko Foru Arauaren testu bateginaren 14. artikuluan (testu hori irailaren 29ko 1/2021 Foru Dekretu Arauemaileak onesten du) eta Arabako Lurralde Historikoko Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean xedatzen denari jarraikiz.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA. 2026ko otsailaren 5a baino lehenagoko erreserbak

Foru arau honen 12. artikuluan eta azken xedapenetako bigarrenean jasotakoa gorabehera, zerga ez da eskatuko zergadunek 4. artikuluan jasotako ostatu establezimendu turistikoetan egiten dituzten egonaldiengatik, baldin eta erreserba 2026ko otsailaren 5a baino lehen egin bada.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. Foru Araua berrikusi eta aztertzea

Foru arau honen eragina eta beharrak aztertu eta baloratuko dira, aplikatzen denetik bi urte natural osoan behin, eta egin beharreko aldaketak egingo dira foru arau honen 9. artikuluan ezarritako tarifiari. Azterketa hori urtarrilaren 27ko 5/2015 Dekretuan sortutako Euskadiko Turismo Mahaiarekin lankidetzan egingo da.

XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA

Ordenantza fiskalik ez dagoenean aplikatu beharreko araubidea

Foru arau hau indarrean jartzen den egunean ez badira dagokion ordenantza fiskalaren bidez foru arau honen 9. artikuluan aurreikusitako karga tasak finkatu, ostatu establezimendu turistiko mota bakoitzerako ezarritako gehieneko tasak aplikatuko dira.

Halakoetan, dagokion hiruhilekoko likidazio aldiaren hurrengo hilaren lehenengo hogeita bost egun naturaletan aurkeztu beharko dira hiruhilekoko autolikidazioak.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Irailaren 29ko 1/2021 Foru Dekretu Arauemaileak onetsi zuen Toki Ogasunei buruzko Foru Arauaren testu bategina aldatzea.

Irailaren 29ko 1/2021 Foru Dekretu Arauemaileak onetsi zuen Toki Ogasunei buruzko Foru Arauaren testu bateginaren 22. artikulua 1. apartatuari d) letra gehitzen zaio Hona hemen testua:

“d) Egonaldi turistikoen gaineko zerga.”

Bigarrena. Indarrean jartzea.

Foru arau hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean eta 2027ko urtarilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena. Gaitzea.

Arabako Foru Aldundiari baimena ematen zaio xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko ekainaren 10a

Lehendakaria

IRMA BASTERRA UGARRIZA